Erref. kodea: LAF-218-191 [36]
219

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Harizpe, A.: *Elgar egin ikustekoa (Kondaira berria)*

QUINCAILLERIE - DROGUERIE
A. HARISPE
GUÉTHARY (B-P)

Elgar Egin ikustekoa
(Kondaira Berria)

Maritchuk kondatu gaitu, joan den hamabiko astekari "Herrian", nola izan zen "Pernando" tratulari abila eta artecha. Eta nik uste dut holako zaldiketaria behar ginduzkela Eskual Herriko "Herri Etche" guzietan.

Zeren dako? erraten nauzu Maritchu!

Horra =

Dakizun bezala merkatu handian sartzen gare igandean zortzi, erran nahi baitu bozen denboran sartzen garela, edo jada sartuak garela. Eta ez da gero ichtorio bat errecha, gauza hori.

Gaichoa, alde batetik gizonak arras kechatuak dire eta jada ez direnak oraino kechu ...... kechatuko dire, ni segur.

Bertzaldetik, udaberrin sartu gabe, emazteak loratzen asiak dire edo gorris edo churis. Halere gorri guti, nun ez den behar dena ezpainetan edo atzaparretan, margo airosa eta borthitza izanes naski.

Ainitzek ere, churi orren laguntzarekin nahi lituzkete naski, beren hamabortz urteak berritz bildu.

Bainan, bertzeak bertze, andere hoiek, egun bethean hor dire ibilki etches etche eta beren bizitegian direlarik, begiak maiz oihalen gibelean

sartuak, nehor ikusiko duten ez dohana bere
usaiako bidean.

Gauaz ez dute lo egiten ahal eta badut
beldurra, jaun sendakinak, izanen duhen larra
burus beheiti.

Maritchu, oraiko ibilbide lasterrekin,
pentsatzen dut zure Pernandok, Laphurdiko,
Bachenabarreko eta Ziberoko ërri etchë guzietan
ager-aldi ttipi bat eginen duhela, gauza guziak
antolatzeko denen gostu.

Bainan othoi utz detzala, zedarria
zaintzen duten mando baliosak, zeren heiekin
lukainka biziki tcharra eginen du

Zer zaitzu, Maritchu?

FSC
MIXTO
FSC® C001636